




AITA IZENA KANTA BEHARRAK

Doinuaren sortzailea eta bertso honen egilea: Xabier Amuriza (1941 Etxano, Bizkaia).

Bertsoaren berri

1980ko Txapelketa Nagusian bakarka hiru bertso kantatzeko gai hau jarri zioten Amurizari: Aita. Xabierrek aita hila zuen, bera Zamorako kartzelan zegoen bitartean; zazpi urte egin zituen preso, hiru espetxealditan, Francoren diktadura garaian (1968tik aurrera).

Amurizak irabazi zuen 1980ko Txapelketa Nagusi hura eta baita 1982koa ere.

Aita izena kanta beharrak
jarri dit bihotza **bero**
aukera eder hau izango zenik
ez nuen hemen **espero**;
preso nengoen Zamoran eta
han gelditu ia **ero**
joan nintzen ta bertan nengola
aita hil zitzaidan **gero**
nahiago nuke edozer baino
hemen bizirik **balego (bis)**.

